

42 ■ Fernando Beorlegi artista hil da

» 79 urte zituela zendu da. Errealitatea edertzen saiatu zen bere koadroen bitartez, ironia erabiliz.



42 ■ Meicior Comesentzat Josep Pla saria

'La batalla de Walter Stamm' obrari esker irabazi du mallorcarrak katalanez idatzitako obren saria.

Bulebarra, erdalduna?

Xabier Silveirak eta Mariasun Landak gaztelania hautatu izanak harridura eragin eta eztabaida piztu du sarean

ALBERTO BARANDIARAN

Donostiako Bulebarrean erdaraz egiten da, Parisen ez da euskaraz egiten. Ez bagenekien, orain badakigu». Koldo Izagirik euskal literaturaren funtzioaz eta euskal idazleen lanbideaz eztabaida piztu du, non eta eztabaidak, orain, pizten diren ez-tokian: sarean. *Le train expres Dürkheim-Castéjon* artikuluan, Mariasun Landaren *Festa aldameneko gelan* (Erein) eta Xabier Silveiraren *A las ocho en el Bule* (Txalaparta) liburu argitalpenak piztutako «harridurak» bildu ditu Izagirik, eta *bazka.info* gune digitalean idatzi. «Ez ote da gertatzen ari, zenbait libelagilek uste zutenaz oso bestera, errazagoa dela publikatzea gaztelaniaz, euskaraz baino? Ez ote da gertatzen ari euskaraz publikatzeak lanketa eskatzen diola idazleari?», idatzi du.

Galderok oihartzuna izan dute euskal literaturaz diharduten blogari batzuenan, eta idazle ezagunen erantzun eta kontragudio sorta ekarri dute. Honako honetan, Izagiriren kezkekin bat; harako hartan, Silveiraren eta Landaren hautuaren alde. Ia denetan, euskal literaturaren gaur egungo egoeraren gaineko kezka igartzen da. Bi euskal sortzailek zer dela-eta ikusi duten euren burua erdaraz idaztera behartuta. Hori inorentzat probetxugarria den edo atzerapausoa den.

«**ARAZOA EZ DA HIZKUNTZA**». Bi egileen argudioei erreparatu die Izagirik. Mariasun Landak arrazoitu du sentitzen zuela Parisen gertatutako istorioa gaztelaniaz idatzi behar zuela. «Beharbada, gizarte erdaldun honen isplua baino ez da izango, ia bizitza guztia gaztelaniaz egiten dugulako, nahiz eta euskarazko hitzak jarri». Silveirak zera esan du: «Nahiz eta euskaltzale sentitu eta euskara ikasi nahi izan, mundu hura erdaraz bizi izan nuen, eta mundu hura birsortzeko, erdara behar nuen».

Aitorpen horien harriduraren haritik, susmoa azaleratzen da Izagirren idazkian, rolak aldatzen ari ote diren. Baina arazoa ez dela hizkuntza nabarmendu nahi izan du. «Idaztea ez baita jardun naturala. Idazletza lanbidea da. Ofizio bat, ofiziale izateraino ikastekoa. Hizkera bat lortu arteko ikasketa, eta obra berri bakoitzak eskatzen duen izerdia (...). Tamalez edo beharrik, literaturaren mugak ez ditu hizkuntzak ezartzen... Tamalez edo beharrik, literatura beti zer edo zeren salaketa den arren, salaketa ez da aski literatura egiteko». Jokin Muñozen eta Ramon Saizarbitoriaren adibideak paratu ditu Izagirik. Donostiako Bulebarreko euskara oraingoa baino murriztagoko hartan «jatoritasun berri bat» moldatu zuela Saizarbitoriak. Hizkera, Muñozen liburuetan, «munduko erreialismo guztien gainetik erreialitate kolektiboa bihurtzen den eraikuntza pertsonala» bihurtu dela.

Silveirak berak erantzun zion Izagirri, *Gara*-ko bere zutabearen Sutan zela. «Ez dira, bada, zilarrezko lumak guda dantzan jarri ez dakit nork ez dakit zer espainolez idatzi duelako? Eta espainolek egiten dituzten keriek ez al dute zuen matxinadarek merezi? Euskararen herria da Euskal Herria, ez euskararen kontura bizi diren herria. Beste egoera bat biziko luke euskarak Euskal Herria ez bagenu lau sosen truk salduko egunero-egunero». Eta gero zera galdetzen zuen: «Zer dela-eta da bekatu es-

«Ez ote da gertatzen ari, zenbait uste zutenaz bestera, errazagoa dela publikatzea gaztelaniaz?»

KOLDO IZAGIRRE
IDAZLEA

«Zer dela-eta da bekatu espainolez idaztea, eta ez espainolentzat euskaraz lan egitea?»

XABIER SILVEIRA
IDAZLEA

«Euskal literaturak azken 40 urteetan ireki duen atea itxita balego bezala jokatu dute Landak eta Silveirak»

JUAN LUIS ZABALA
IDAZLEA

Xabier Silveiraren liburuaren 3. edizioa aterako dela eta, hori ospatzeko joan den astean egin zuten festan. GARI CARAÑALDE / ARP

painolez idaztea, eta ez espainolentzat euskaraz lan egitea? Zer dela-eta da delitu espainolez hitz egitea esandakoa espainolez esan denaren aitzakia espainiarrekin bat egitea ez denean delitu?».

Juan Luis Zabalak Izagirriren arrangura bera agertzen du BERRIAko bere blogean (*berria.info/blogak/zabala/*). Eta bi idazleen jarreraren atzetik, berak ere euskal literaturak «aspaldi gaunditua duen ataka batean atzerapausoa» sumatu du. Afera ez dela zer hizkuntza aukeratu duten, ezpada euskara zergatik baztertu duten. «Euskal literaturak azken 40 urteetan ireki duen atea zabal edo bat itxita balego bezala jokatu dute Landak eta Silveirak. Horrek sentiarazi dion mina transmititu diot niri Izagirriren artikulua, min hori gutiz neureganatzeraino, min hori euskal literatura garaikideari atxikimendu pixka bat dion edonori sentiarazteko gisan».

Hasier Etxeberriak ere kezka izango zuen eskuan dardar, *alua.mundua.com* bere blogean hau idatzi zuenean: «Kataklistmoa gainean da. Baina ez da bat-batekoa, urrutitik zetorren eta aspalditik dago geure baitetan hazten jarritan».

EUSKAL LITERATURAREN MAILA. Jokin Muñoz bera tartekatu da eztabaidan. Euskaraz zergatik idatzi eta gogoak ematen diolako eta gaztelaniaz baino hobeto idazten duela. Eta gauza batek bereziki harritzen duela: «Baterik duarik gabe, euskarazko euskal literatura —Aingeru Epaltza, Andu Lertxundi, Felipe Juaristi, Juanjo Lasagarte, Iban Zaldúa...— maila askoz ere altuagoa erakusten ari dela gaztelaniazko euskal literatura baino —alegia: Xabier Silveira, Jose Maria Esparza, Floren Aoz, Iñaki De Juana...—».

Lander Garrok segida eman dio sesioari, *bazka.com* gunean bertan, Silveiraren argudioekin bat egiteko. Nahiago duela «espainolez espainolen kontra aritzen dena, euskaraz euskaldunon kontra aritzen dena baino (edo, bestela esanda, euskaraz, espainolen alde)». Egiten dugun hizkuntza gorabehera, tesi bat defendatzen dugula beti, «eta alferrik da euskaraz egitea, tesia euskararen kontrakoa bada».

Edorta Jimenezek txalotu egin ditu Landaren eta Silveiraren ahauleginak. Eta Muñozek aipatutako «gaztelaniazko euskal literatura» esapide horren atzean dagoen «sakoneko gaia» nabarmendu du.

Hainbat hedabidetan euskal literatura ez dela existitu ere egiten, boikota dagoela... «Oro har, hedabide horien emanaldietan kolonizatzen Ghetto literaturak da euskal literatura», esan du. «Kolonizatuok Ghettoa gustura edo, ez dugu horien gainean ezer esaten. Silveiraren liburuak ez du ghettoaren inguruko isiltasunezko harreagia gaunditu, erdaraz idatzia izanagatik. Ghettotik kanpo auzitegiatana eta kondena idazkietan baino aipatu ezin den gaia jorratzen du eta. Irakaspen ederra».

Bitartean, Silveirak iragarri du bigarren eleberriarren gidioa prest daukala. Euskaraz idatziko ote duen? «Noizbait», bai.

infernuho ateetan tour

LAITZEN + SUBITER

Urtarrilak 19

TUTERA

Noboo Aretoa 22:30etan

SARRERA: 8 € aurretik • 11 € takilan.

AURRESALMENTA PUNTUAK: CALAHORRA: Multiocio
TUTERA: Bar La Higuera - Bar Josema - Tienda de ropa Jesus Clemos

berria